

Esp. Zkia.- KE-2023-009

E.E.- 2023-00203

185/2023 ALKATETZA DEKRETUA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2023ko jorrailaren 20an.

OINARRIA: 2023ko urtarrilaren 26an BAOean 2023 ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatzaren, G-48525513 IFK zenbakidunaren, aldeko diru-laguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu partida konkretuan (334-48100). Hau horrela elkarteak 2023ko martiaren 28an udal sarrera erregistroan E202301283 inskripzio zenbakiarekin dirulaguntzaren eskaria aurkeztu zuen.

OINARRIA: 2022ko jorrailaren 20ko datarekin udal kontu-hartzaitzak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatzari (IFK: G-48525513); 2.500,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 334-48100 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta.

BIGARRENA.- 10 laneguneko epea eman aipatutako elkarteari 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. artikuluan adierazitako betekizunak jasotzen dituen hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Sinatuko den hitzarmena oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikatu eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Iñigo Gaztelu Bilbao
Alkatea

Nire aurrean,
Behin-behineko Idazkaria